



baliabideak
material didaktikoa



Bizi artifiziala sortzeko gai?

Ricardo Hernandez Conejero

Ikasle kaiera

IKD baliabideak 3 (2012)

AURKIBIDEA

PROIEKTUAREN FORMULAZIO OROKORRA	3
1) Galdera Eragilea eta enuntziatua	3
PROIEKTUAREN EDUKINAK, HELBURUAK ETA EMAITZAK	6
2) Edukinak	6
3) Ikasteko helburuak eta emaitzak	7
METODOLOGIA	7
4) Taldeak	7
5) Aktibitateen zerrenda	7
EMANGARRIAK ETA EBALUAKETA	8
IKASLEAREN LANAREN PLANIFIKAZIOA	9
BALIABIDEAK	12
ERANSKINAK	
1. Eranskina: Maila-Proba	17
2. Eranskina: Hieroglifo deszifratuen azalpenak eskuratzeko baliabideak	18
3. Eranskina: 2. emangarria	19
4. Eranskina: 1. puzzlea: espertoei galdetegia	29
5. Eranskina: 4. emangarria	33
6. Eranskina: 2. puzzlea: espertoei galdetegia	43
7. Eranskina: Oinarrizko ezaguerak	47
8. Eranskina: Taldeen funtzionamenduaren galdetegia	49
9. Eranskina: Metodologiari buruzko galdetegia	50
10. Eranskina: Errubrikak	52

PROIEKTUAREN FORMULAZIO OROKORRA

1) Galdera Eragilea


Laborategian bizi sintetiko/artifiziala sortzeko gai izango al gara inoiz?

2) Enuntziatua


Mundu osoan hainbat zientzilari bizia artifiziala laborategian sortzeko ahaleginetan dabilta azken hamarkadetan. Ikerketa horiek bultzakada handia jaso zuten 2000. urtean NASA-k hieroglifo eran kodifikatutako 12 mezu jaso zituen urrutiko zibilizazio batetik. Hieroglifo horietan bizitza sortzeko oinarriko argibideak aurkitzen ziren. Azken 10 urte hauetan zientzilari baten ardura honakoa izan da hieroglifoak deszifratzea. Tamalez iaz zientzilaria hil egin zen bere lana bukatu gabe utziz: 4 hieroglifo besterik ez zituen deszifratu (A, C, D eta H).

Zuen lana ondokoa da gainerako zortzi hieroglifoak deszifratzea eta ordenatzea kronologikoki bizitza sortzeko.


Hieroglifoak ondokoak dira:




A
aminoazidoak eta
proteinak




B




C
Talde
funtzionalak




D
karbono kirala




E



F




G




H

nukleotidoak eta
 azido nukleikoak




I



J



K



L

PROIEKTUAREN EDUKINAK, HELBURUAK ETA EMAITZAK

1) Edukinak

Ondoko edukinak garatuko dira proiektuan

- **Atomoaren elektroi egitura.** Atomoaren elektroi egitura. Uhin-Mekanikaren Printzipioak. Hidrogeno atomoari dagokion uhin-ekuazioa. Funtzio erradiala eta angeluarra. Zenbaki kuantikoak. Orbital atomikoak
- **Atomo polielektronikoak. Propietate periodikoak.** Espezie polielektronikoak. Konfigurazio elektronikoa. Elementuen sailkapen periodikoa. Zenbait propietate atomiko: erradio atomikoa, ionizazio-potentziala, afinitate elektronikoa.
- **Lotura kimikoa.** Lotura-motak eta sustantzien propietate erlazionatuak. Lotura ioniko, kobalente eta metalikoa
- **Lotura ionikoa.** Lotura ionikoen eraketa: ioiarteko interakzioak. Lotura ionikoaren energia. Born-Haber zikloa. Eredu ionikoaren zuzenketa: polarizagarritasuna Lorem ipsum dolor sit amet, consectetur adipiscing elit.
- **Lotura kobalentea I.** Zenbait magnitude molekular: Lotura-luzera eta energia. Lewis egiturak. Molekulen geometria: BGEBA eredia.
- **Lotura Kobalentea II.** Balentzi Loturaren Metodoa. Hibridazioaren kontzeptua: molekula batzuen azterketa. Orbital Molekularraren Metodoa. Molekula diatomikoak. Eredu kobalentearen zuzenketa: elektronegativotasuna eta lotura kobalentearen polartasuna.
- **Molekularteko indarrak.** Molekularteko interakzioak. Hidrogeno lotura.

Aldez aurretik deszifratutako hieroglifoak (A, C, D eta H) edukinak ez dira irakasgaiaren gaitegian sartzen.

2) Ikasteko helburuak eta emaitzak.

Lana bukatutakoan ikaslea gai izango da materiaren konposaketa eta egiturari dagozkion kimikaren oinarrizko kontzeptuak eta kontzeptu horietatik datozen ezaugarri kuantitatiboak azaltzeko (M1.2 eta M1.3) Halaber gai izango da kontzeptu horiek aplikatzeko konposatu ezorganiko ohikoen egitura eta erreaktibotasuna deduzitzeko (M1.4). Guzti hau hizkera kimiko egokia erabiliz (M1.1).

Zeharkako helburuei dagokienez ikasleak gai izango dira taldeko lanak egiteko eta kimikan ohiko informazio eta dokumentazio-iturriak erabiltzeko (M1.T3). Gainera bere lanean aplikatuko dituzte beren ezaguerak era profesionalean (MEC2) eta datu aipagarrienak bildu eta interpretatuko dituzte ondorioak ateratzeko, aztergaia den gaiaren inguruko hausnarketa jasotzen dutenak (MEC3). Halaber gai izango dira ideiak, arazoak eta irtenbideak transmititzeko ikuslegoari, aditu edo aditugabea dena. (MEC4), komunikazio zientifikoan erabiltzen diren hizkera eta idazkera zuzenak erabiliz, fenomeno kimiko esperimentalak deskribatzeko eta emaitz erabakigarriak ateratzeko (M1.T2)

METODOLOGIA

1) Taldeak

Taldeak: 4 lagunekoak. Irakasgaia lehen mailakoa da eta lehen lauhilean ematen da. Hots, ikasleak ezezagunak dira eta erizpide bakarra alfabetoa da. Hori bai taldekideek ordutegi berdinak eduki behar dituzte.

2) Aktibitateen zerrenda

- 1) Proiektuaren aurrekoa: Sarrera eta Maila-Proba (1. Eranskina)
- 2) Girotze-eginkizuna: "Kimika eta Bizitza" bideoa (ikus baliabideak)
- 3) Irakurketa Orokorra, ez-presentziala eta indibiduala (ikus baliabideak)
- 4) Proiektuaren aurkezpena: Ikaslearen Gida. Ideia-jasa: "zer jakin behar dugu proiektua garatzeko?" Argibideak taldeka lan egiteko
- 5) Puzzle ariketa (kimikari buruzkoa): gaien banaketa, espertuen bilera eta espertuen azalpena.
- 6) Lehen puzzlea: "Egitura atomikoa". Gaien banaketa. 1. eta 2. emangarrien enuntziatuen banaketa (3. Eranskina)
- 7) Puzzlearen prestaketa indibiduala eta ez-presentziala
- 8) Lehen puzzlea. Eztabaidarako galderak (ikus baliabideak)

- 9) Espertoen batzarra eta prestaketa presentziala eta ez-presentziala (dagokion atalaren txosten edo gida bat gelakoei kontatzeko)
- 10) Espertoei galdetegia (galdera klabe batzuk dituen) pasatu, bakoitzak bere buruari nota jartzeko (4. Eranskina)
- 11) 1. emangarrian ekarritako zalantzei buruzko mintegia
- 12) Espertoen auzkezpena ikasgela osoari
- 13) 2. Emangarriaren prestaketa indibiduala eta ez-presentziala
- 14) Proiektuaren garapena: hieroglifoen ordenaz eztabaidatu eta txostena egin (taldekoa eta ez-presentziala)
- 15) Taldearen hausnarketa: taldearen funtzionamendu eta metodologiari buruzko galdetegia (8 eta 9. Eranskinak)
- 16) 2. puzzlea: "Materiaren osagaien arteko loturak eta indarrak". Gaien banaketa eta prestaketa. 3. eta 4. emangarrien enuntziatuen banaketa (5. Eranskina)
- 17) Puzzlearen prestaketa indibiduala eta ez-presentziala
- 18) 2. puzzlea. Eztabaidarako galderak (ikus baliabideak)
- 19) Espertoen batzarra eta prestaketa presentziala eta ez-presentziala (dagokion atalaren txosten edo gida bat gelakoei kontatzeko)
- 20) Espertoei galdetegia (galdera klabe batzuk dituen) pasatu, bakoitzak bere buruari nota jartzeko (6. Eranskina)
- 21) 3. emangarrian ekarritako zalantzei buruzko mintegia.
- 22) Espertoen auzkezpena ikasgela osoari
- 23) Espertuen aurkezpenetan sortutako zalantzei buruzko mintegia.
- 24) 4. emangarriaren prestaketa indibiduala eta ez-presentziala
- 25) Proiektuaren garapena: hieroglifoen ordenaz eztabaitu eta txostena egin (taldekoa eta ez-presentziala)
- 26) Aurkezpenaren taldeko prestaketa (presentziala eta ez-presentziala)
- 27) 4. emangarriari buruzko mintegia
- 28) Jakintza minimoen azterketa prestatzeko mintegia (7. Eranskina)
- 29) Aurkezpena (ahozkoa, egun berean irakasleak aukeratutako taldekideak egin behar du)
- 30) Taldearen hausnarketa: taldearen funtzionamendu eta metodologiari buruzko galdetegia (8 eta 9. Eranskinak)
- 31) Jakintza minimoen idatzizko azterketa (7. Eranskina)

EMANGARRIAK ETA EBALUAKETA

(irakasgaia gainditzeko emangarri guztiak entregatu behar dira derrigorrez)

- **1. emangarria:** indibiduala, 1. puzzletik espertoek ekarritako zalantzak (notaren portzentaiarik ez dauka). Irailaren 19an entregatu.

- **2 emangarria:** nota osoaren %10, indibiduala, egitura atomikoari buruzko zenbait ariketen ebazpena (3. Eranskina). Gutxieneko nota: 5.5 (10-tik). Ariketa guztiak eginak entregatu behar dira. Irailaren 26an entregatu.
- **3. emangarria:** indibiduala, 2. puzzletik espertoek ekarritako zalantzak (notaren portzentaiarik ez dauka). Urriaren 4an entregatu.
- **4. emangarria:** nota osoaren %10, indibiduala, lotura kimiko eta molekularterako indarrei buruzko zenbait ariketen ebazpena (5. Eranskina). Gutxieneko nota: 5.5 (10-tik). Ariketa guztiak eginak entregatu behar dira. Urriaren 13an entregatu
- **5. emangarria:** nota osoaren %30, taldekoa, proiektua, zortzi hieroglifoan azalpena (1000 hitz, bakoitzeko) eta hamahiruren ordena (500 hitz) (ikus 10. Eranskina: "Errubrikak"). Gutxieneko nota 6.0 (10-tik). Urriaren 21ean entregatu
- **Gutxieneko ezagutzaren azterketa:** nota osoaren %25. Gutxieneko nota: 5.5 (10-tik) (7. Eranskina). Urriaren 21ean egingo da.
- **Aurkezpena:** nota osoaren %15, bost-hamar minutukoa, hieroglifoan ordena aztertu (ikus 10. Eranskina: "Errubrikak"). Gutxieneko nota 5.0 (10-tik). Zoriz aukeratutako taldekide batek egin (nota taldekide guztientzakoa da). Urriaren 19 eta 20an egingo da.
- **Falta dena:** nota osoaren %10, irakaslearen eritzia, ikaslearen jarrerari buruzkoa.
- **Faltak:** gehienez, justifikatuak badira ere, saio presentzial guztien %10.

IKASLEAREN LANAREN PLANIFIKAZIOA

1) Proiektuaren saio presentzialen banaketa

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
1. astea irailak 5-9	1. saioa	2.saioa		3.saioa	
2. astea irailak 12-16	4. saioa	5. saioa		6. saioa	7. saioa
3. astea irailak 19-23	8. saioa	9. saioa		10. saioa	11. saioa

4. astea irailak 26-30	12. saioa	13. saioa	14. saioa	15. saioa	16. saioa
5. astea urriak 3-7	17. saioa	18. saioa		19. saioa	20. saioa
6. astea urriak 10-14	21. saioa	22. saioa		23. saioa	24. saioa
7. astea urriak 17-21	25. saioa	26. saioa	27. saioa	28. saioa	29. saioa

Saio bakoitza: ordu presentzial bat.

2) Proiektuaren saio guztien deskribapena asteko

1. astea	
1. saioa	Proiektuaren aurrekoa: Sarrera eta Maila-Proba. Girotze eginkizuna: "Kimika eta Bizitza" bideoa.
Saio ez-presentziala	Irakurketa Orokorra: 2h, indibiduala (ikus baliabideak)
2. saioa	Proiektuaren aurkezpena: "Ikaslearen Gida". Ideia Jasa: "zer jakin behar dugu proiektua garatzeko?" Argibideak taldeka lan egiteko
3. saioa	Taldeen konposaketari buruzko informazioa. Puzzle ariketa (kimikari buruzkoa). Lehen puzzlea: Egitura atomikoa. Gaien banaketa. 1. eta 2. emangarrien enuntziatuen banaketa (3. Eranskina).
Saio ez-presentziala	Lehen Puzzleari dagokion Irakurketa indibiduala (8h) (ikus baliabideak: Moodle-ko apunteak eta liburuak)

2. astea	
4. saioa	Lehen puzzlea. Eztabaidarako galderak: espertuen bilera egin aurretik ikasleei planteatzen zaizkienak (ikus baliabideak). Saio hauetan ikasleak taldeka antolatzen dira tokatutako gaiaren arabera.
5. saioa	4. saioaren jarraipena
6. saioa	5. saioaren jarraipena
7. saioa	Espertoen batzarra eta prestaketa (txosten edo gida bat)
Saio ez-presentziala	Espertoen batzarra egin ondoren txosten edo gida bat egin gelakoei

	kontatzeko. Indibiduala (3h)
--	------------------------------

3. astea

8. saioa	Espertoei galdetegia (4. Eranskina) pasatu, bakoitzak bere buruari nota jartzeko. <u>1.emangarria entregatu</u> .1. emangarriko zalantzei buruzko mintegia
9. saioa	1. emangarriko zalantzei buruzko mintegiaren jarraipena
10.saioa	Espertoen auzkezpena ikasgela osoari. Saio hau burutzeko ikasleak taldeka antolaturik daude tokatutako gaiaren arabera
11. saioa	Espertoen auzkezpena ikasgela osoari aurreko saioan bezala
Saio ez-presentziala	2. emangarriaren prestaketa indibiduala (5h) (3. Eranskina).

4. astea

12. saioa	Atera diren (eta deszifratuak zeuden) hieroglifoen ordenaz eztabaidatu. <u>2. emangarria entregatu</u>
Saio ez-presentziala	Aurreko saioko emaitzen prestaketa, taldekoa (3h)
13.saioa	Taldearen funtzionamendu eta metodologiari buruzko hausnarketa (8. eta 9. Eranskinak). 2. puzzlea: materiaren osagaien arteko loturak eta indarrak: gaien banaketa eta prestaketa. 3. eta 4. emangarrien enuntziatuen banaketa (5. Eranskina).
Saio ez-presentziala	2 Puzzleari dagokion Irakurketa indibiduala (8h) (ikus baliabideak: Moodle-ko apunteak eta liburuak)
14. saioa	2. puzzlea. Eztabaidarako galderak: espertuen bilera egin aurretik ikasleei planteatzen zaizkienak (ikus baliabideak). Saio hauetan ikasleak taldeka antolatzen dira tokatutako gaiaren arabera.
15. saioa	14. saioaren jarraipena
16. saioa	15. saioaren jarraipena

5. astea

17. saioa	Espertoen batzarra eta prestaketa (txosten edo gida bat)
Saio ez-presentziala	Espertoen batzarra egin ondoren txosten edo gida bat egin gelakoei kontatzeko. Indibiduala (3h)
18.saioa	Espertoei galdetegia (6. Eranskina) pasatu, bakoitzak bere buruari nota

	jartzeko. <u>3.emangarria entregatu</u> .3. emangarriko zalantzei buruzko mintegia
19. saioa	3. emangarriko zalantzei buruzko mintegiaren jarraipena
20. saioa	Espertoen auzkezpena ikasgela osoari. Saio hau burutzeko ikasleak taldeka antolaturik daude tokatutako gaiaren arabera
Saio ez-presentziala	4. emangarriaren prestaketa indibiduala (5h) (5. Eranskina)

6. astea

21. saioa	20. saioaren jarraipena
22. saioa	Espertuen aurkezpenetan sortutako zalantzei buruzko mintegia
23.saioa	Atera diren (eta deszifratuak zeuden) hieroglifoen ordenaz eztabaidatu. 5. emangarriaren prestaketa (10. Eranskina: Errubrikak) <u>4. emangarria entregatu</u> .
Saio ez-presentziala	5. emangarriaren prestaketa taldean (6h).
24. saioa	Aurkezpenaren prestaketa (10.Eranskina: Errubrikak)
Saio ez-presentziala	Aurkezpenaren prestaketa taldean (4h)

7. astea

25. saioa	4. emangarri zuzendua ikasleei itzuli. Emangarri horri buruzko zalantzak.
26. saioa	Jakintza minimoen azterketa prestatzeko mintegia (7. Eranskina)
27.saioa	Proiektuaren Ahozko Aurkezpena (egun berean irakasleak aukeratutako taldekideak egin behar du) (10. Eranskina: Errubrikak). <u>Aurkezpenak zintzilikatu Moodlen</u> .
28. saioa	Aurkezpenaren jarraipena. Taldearen funtzionamendu eta metodologiari buruzko hausnarketa (8. eta 9. Eranskinak)
29. saioa	Jakintza minimoen azterketa (7. Eranskina). <u>5. emangarria zintzilikatu Moodlen</u>

BALIABIDEAK

- **Science of the Invisible.** Woodward, J.; Davies D.; Ellis, A.; Evans, C.; Harrison, T.; Raine, D.; Ryder, K.; Williams, D. University of Leicester <http://www2.le.ac.uk/departments/interdisciplinary-science>
- **Kimikaren liburuak**
 - *Química (10. argitalpena).* R. Chang. McGraw-Hill, 2010
 - *Química, La Ciencia Central (11. argitalpena).* T.L. Brown; H.E. Lemay; B.E. Bursten; C. J. Murphy. Prentice Hall Hispanoamericana, 2009
 - *Kimika Orokorra.* UEUko Kimika Saila. Udako Euskal Unibertsitatea, 1996.
 - *Formulazioa eta nomenklatura kimikan. IUPAC Arauak.* F. Andrés, A. Arrizabalaga. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua. 199
- **Biologiaren liburuak**
 - *Biokimikaren oinarriak.* Lehninger, Nelson eta Cox. 2. edizioa. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua (2008).
 - *Introducción a la Biología Celular.* (2005). 2ª edición. Ed. Panamericana. Alberts, Bray, Johnson, Lewis, Raff, Roberts & Walter (p. 39-51, 64-65 (irakurketa orokorra))
- **Zenbait web-orrialde:**
 - www.whfreeman.com/acsgenchem/
 - www.whfreeman.com/chemicalprinciples3e/
 - <http://www.buruxkak.org/> (euzkeraz dauden zenbait liburu digital eskuratzeko)
- **Maila-proba baten eredia** (1. saioa) (1. ERANSKINA)
- **Bideoa:** "Kimika eta Bizitza" (1. saioa) (<http://youtu.be/GBarVzhMb6E>)
- **Irakurketa orokorra:** *Introducción a la Biología Celular* (p. 39-51, 64-65)
- **Web loturak eta irakurketak,** hieroglifo deszifratuen azalpena eskuratzeko (2. ERANSKINA)
- **2. emangarriak** (3. saioa) (3. ERANSKINA)
- **Moodle-ko apunteak eta liburuak,** 1. puzzleari dagokion irakurketa indibiduala egiteko:
 - *1. gaia:* Atomoaren egitura elektronikoa: sarrera, Bohr eredia, Uhin Mekanikaren Printzipioak eta Srödinger ekuazioaren esanahia eta forma. Moodle: 1-14 diapositibak

Liburuak: CHANG: p 42-43, 49-50, 276-277, 282-293. BROWN: p 38-39, 43-47, 211-213, 218-224

- 2. *gaia*: Atomoaren egitura elektronikoa: Srödinger ekuazioaren soluzioak, orbitalak eta zenbaki kuantikoak eta orbitalen energiak
Moodle: 15-37 diapositibak
Liburuak: CHANG: p 293-300. BROWN: p 224-232
- 3. *gaia*: Atomo polielektronikoak: orbitalak eta bere energia diagrama, eta konfigurazio elektronikoa
Moodle: 1-23 diapositibak
Liburuak: CHANG: p 300-310. BROWN: p 232-243
- 4. *gaia*: Atomo polielektronikoak: elementuen sailkapen periodikoa eta beren propietateak taulan kokapenaren arabera (propietate periodikoak)
Moodle: 13, 24-38 diapositibak
Liburuak: CHANG: p 322-343. BROWN: p 254-271

- **Eztabaidarako galderak**, lehen puzzleari dagozkionak (4, 5 eta 6 saioak)

- Zeintzuk dira atomoaren osagaiak?
- Zer dira isotopoak?
- Bohr eredua erabiliz zuzen deskriba daiteke elektroiaren portaera H atomoan?
- Zer da uhin-partikula dualtasuna? Eta ziurgabetasunaren printzipioa?
- Srödinger ekuazioaren erabilgarritasuna aztertu.
- Zer da orbital bat? Nola erlazionatzen da zenbaki kuantikoekin?
- Energiaren arabera nola kokatzen dira orbitalak H atomoan?
- Atomo polielektronikoetan orbitalen posizioak modifikatzen al dira?
Zergatik? (sarkortasuna eta pantailatzea?)
- Nola banatzen dira elektroiak atomo polielektronikoetan?
- Nola kokatzen dira elementuak taula periodikoan?
- Nola deduzi daitezke elementuen propietateak taulan kokapenaren arabera?

- **Espertoei galdetegiak**, lehen puzzleari dagozkionak (8. saioa) (4. ERANSKINA)

- **Taldeen funtzionamenduaren galdetegia** (13 eta 28. saioak) (8. ERANSKINA)
- **Metodologiari buruzko galdetegia** (13 eta 28. saioak) (9. ERANSKINA)
- **4. emangarriak** (13. saioa) (5. ERANSKINA)
- **Moodle-ko apunteak eta liburuak**, 2. puzzleari dagokion irakurketa indibiduala egiteko:
 - *1. gaia*: Lotura kimikoa eta lotura-motak. Lotura kobalentearen oinarriak
Moodle: lotura-motak: 1-7; lotura kobalentearen oinarriak: 1-16 diapositibak
Liburuak: CHANG: p 366, 374-376, 380-396, 410-419. BROWN: p 298-299, 305-307, 314-329, 342-352
 - *2. gaia*: Lotura kobalentea: Balentzia Loturaren Teoria (BLT) eta Polartasuna.
Moodle: BLT: 1-14 eta Polartasuna: 1-8 diapositibak
Liburuak: CHANG: p 377-379, 420-439. BROWN: p 307-312, 353-368
 - *3. gaia*: Lotura kobalentea: Orbital Molekularren Teoria (OM) eta Molekularteko Indarrak (MI)
Moodle: OM: 1-12 eta MI: 1-12 diapositibak
Liburuak: CHANG: p 440-448, 463-469. BROWN: p 368-378, 439-447
 - *4. gaia*: Lotura ionikoa
Moodle: 1-24 diapositibak
Liburuak: CHANG: p 367-374. BROWN: p 299-304
- **Eztabaidarako galderak**, bigarren puzzleari dagozkionak (14, 15 eta 16 saioak)
 - Zer da lotura kimikoa? Zeintzuk dira lotura kimiko motak?
 - Zer da elektronegatibotasuna?
 - Zenbait atomok ioiak erraz osatzen dituzte. Beste batzuk molekula eran aurkitzen dira normalean. Zergatik?
 - Zein lotura-mota dago NaCl eta Al₂O₃ solidoetan? Zeinek dauka fusio-puntu altuagoa?
 - Zer da sigma (σ) lotura? Eta pi (π) lotura?
 - Orbital atomiko, hibrido eta molekularren arteko diferentziak.

- Idatzi ondoko molekulen Lewis egiturak: NH_3 , CO_3^{2-} eta SF_4 .
 - Lewis egituretatik abiatuz deduzi al daiteke molekulen forma?
 - Nola deduzitu daiteke molekula kobalenteen forma? Adibidez: H_2O eta CO_2 molekulak.
 - H_2O eta CO_2 molekuletako loturak sortzeko zein orbitalak konbinatu egin dira?
 - Baldintza normaletan iodoa (I_2) solidoa da baina kloroa (Cl_2) gasa da. Zergatik?
 - Izotza uretan flotatzen da, zergatik?
- **Espertoei galdetegiak**, bigarren puzzleari dagozkionak (18. saioa) (6. ERANSKINA)
 - **Errubrikak**: 5. emangarria eta ahozko aurkezpena ebaluatzeko (10. ERANSKINA)
 - **Oinarrizko ezagueren zerrenda** (7. ERANSKINA)

1. ERANSKINA

Maila-Proba (eredu bat)

- 1.- Orbital atomikoa. Zenbat orbital atomiko daude $n = 2$ daukan energia mailan?
- 2.- $Z = 4$ eta $Z = 12$ duten elementuak emanik, idatzi bakoitzaren konfigurazio elektroniko osoa oinarrizko egoeran.
- 3.- Ionizazio potentziala. Nola aldatzen da ionizazio potentziala aurreko galderako elementuetan? Zeinek dauka erradio handiagoa?
- 4.- Irudikatu H_2O eta NF_3 molekulen Lewis egiturak
- 5.- Aurresan aurreko molekulen geometría.
- 6.- Orbital hibridoa. Orbital molekularra.
- 7.- Lotura kimiko-motak.
- 8.- Ondoko sustantziak emanik: karbono (diamantea), sodioa, potasio kloruroa, metanoa (CH_4) et ura.

Propietatea	Sustantzia
Eroankortasun elektriko altua 100 °C inguruan urtzen da	A
Sustantzia kobalentea Oso fusio-puntu altua	B
Likidoa giro-tenperaturan Molekulak, hidrogeno loturen bidez lotuak	C
Sustantzia ez eroalea Urtuz gero eroale bihurtzen da	D

Identifikatu A, B, C eta D sustantziak.

2. ERANSKINA

Hieroglifo deszifratuen azalpena eskuratzeko web loturak eta irakurketak

A [Aminoazidoak eta proteinak](#)

Introducción a la Biología Celular. p 55-56, 119-123

C [Funtzio taldeak](#)

D [karbono kirala](#)

H [Nukleotidoak eta azido nukleikoak](#)

Introducción a la Biología Celular. p 56-58, 169-171, 175-177

3. ERANSKINA

2. Emangarriak (indibidualak)

1.a

1. Ondoko taulan atomo edo ioi desberdinen konposaketa adierazten da (Letrek ez dute ikur kimikorik adierazten):

	Protoi kopurua	Neutroi kopurua	Elektroi kopurua
M	9	9	9
N	12	12	10
Q	8	10	10
R	11	12	10
T	9	10	10

Adierazi zeinek adierazten duen:

- Katioi bat
 - Anioi bat
 - M-ren isotopoaren ioi bat
2. Irudikatu banaketa erradialaren funtzioa 4s, 4p eta 4d orbitalentzat. Sailkatu, arrazoituz, orbital hauek bere batazbesteko erradioaren arabera (kualitatiboki).
3. Zein da ionizazio energia altuena? Arrazoitu
- ${}_{20}\text{Ca}$ -aren lehena?
 - ${}_{12}\text{Mg}$ -aren lehena?
 - ${}_{12}\text{Mg}$ -aren bigarrena?
 - ${}_{11}\text{Na}$ -aren lehena?
4. Atomo polielektronikoetan ondoko baieztapenak zuzenak al dira? Arrazoitu
- 3s eta 3p orbitalen energia berdina da
 - 2p eta 3p orbitalen forma berdina da
 - 3p orbitalaren tamainua handiagoa da 2p-rena baino
 - 2p orbitala ez dauka plano nodalik
 - 2p orbitalentzako hiru orientazio daude, energia berdinekoak
5. Idatzi ondoko zenbaki atomikoak dituzten elementuen konfigurazio elektroniko osoak oinarritzko egoeran:
- (a) $Z = 17$ elektroi bat hartu duena; (b) $Z = 39$;
 - (c) $Z = 29$ bi elektroi galdu dituen; (d) $Z = 81$

2.a

- 6.** Elementu natural baten atomo guztiek:
- Elektroi kopurua bera dute
 - Neutroi kopurua bera dute
 - Protoi kopurua bera dute
 - Karga nuklearren kopuru bera dute
- 7.** $A_{1,-1} = (3/4\pi)^{1/2} \sin\theta \sin\phi$ funtzioa irudikatu xy planoan. Zein orbitalari dagokio?
- 8.** A elementuaren konfigurazio elektronikoa ondokoa da:
 $1s^2 2s^2 2p^6 3s^2 3p^6 3d^{10} 4s^2 4p^6 4d^{10} 4f^{14} 5s^2 5p^6 5d^7 6s^2$
- Zer da adierazgarria, trantsiziozkoa edo barnetrantsiziozkoa? Zein da bere periodoa?
 - Deduzitu A^{2+} ioiaren konfigurazio elektronikoa
- 9.** Slater arauak erabiliz deduzitu nola aldatzen den ionizazio-potentziala $n = 2$ periodoan (hartu C, N eta F elementuak)
Datua: ionizazio-potentziala eta $(Z^*/n^*)^2$ proportzionalak dira
- 10.** a) Potasioaren konfigurazio elektronikoan azken elektroia 4s orbitalean dago baina ez 3d batean. Zergatik?
b) Idatzi $Z = 26$ duen elementuaren konfigurazio elektronikoa. Bi elektroik galtzean zein da osatutako espeziaren konfigurazio elektronikoa? Zergatik?

3.a

- 11.** Boroaren masa atomikoa 10.81 mau da eta bi isotopo egonkorrez osatuta dago. Isotomo hauen masa atomikoak 10.013 mau eta 11.009 mau dira. Ondoko baieztapenak zuzenak al dira?:
- B-11 isotopoa astunagoa B-10-a baino
 - Boroaren masa atomikoa $(10.003 + 11.009)/2 = 10.511$ mau da
 - Ugaritasun handiagoko isotopoa B-11-a da
 - Boro atomoen mol batean %20-a B-10 isotopoak dira eta gainerakoak B-11 isotopoak
- 12.** Protoi bat mugitzen da argiarena baino 100 aldiz txikiagoa den abiaduraz eta 5,00 g-ko kanika bat 1.00 m/s-ko abiaduraz. Zeinetan da handiagoa uhinaren izaera?
- 13.** Atomo polielektronikoetan ondoko baieztapenak zuzenak al dira? Arrazoituz
- Karga nuklear eraginkorra Z^* atomo batean dauden elektroiek kopuruarekiko independentea da
 - s orbital bateko elektroiek hobeto pantailatzen dute karga nuklearra beste orbitaletakoek baino, s orbitaleko elektroiek bat atomoaren nukleoraino sar daitekeelako.
 - $l = 2$ ko elektroiek hobeto pantailatzen dute karga nuklearra $l = 1$ -koek baino.
 - p orbital bateko elektroiek bati dagokion Z^* txikiagoa da s orbital bateko elektroiek bati dagokiona baino, n berdina izanik.
- 14.** Ondoko konfigurazio elektronikoak emanik
- $1s^2 2s^1$
 - $1s^1$
 - $2s^1$
 - $1s^2 3s^1$
 - $1s^2 2s^2 2p^8 3s^1$
 - $1s^2 2s^2 2p^6 2d^2$
- Zeintzuk adierazten dute elementu bat oinarritzko egoeran dagoena?
- Zeintzuk adierazten dute elementu bat egoera kitzikatu batean dagoena?
- Zeintzuk dira ezinezkoak?
- 15.** Ordenatu, arrazoituz, ondoko espezieak bere erradio atomiko gorakorrearen arabera:
 Na^+ , Mg^{2+} , Al^{3+} , P^{5+} , K^+ .

4.a

16. $^{12}_6\text{C}$, -ari dagokionez:

- a) 12 protoi ditu?
- b) Protoi + neutroi kopurua 12 da?
- c) 12 elektroi ditu?
- d) Bere masa atómica 12 da?

17. Zein orbital-mota definitzen du zenbaki kuantikoen konbinaketa bakoitzak (n, l, m)?

- a) 2, 1, -1
- b) 4, 3, 2
- c) 2, 0, 0
- d) 4, 2, -1

Kokatu orbital horiek energia-diagrama batean atomo monoelektroniko batentzako.

18. Slater arauak erabiliz deduzitu nola aldatzen den ionizazio-potentziala O-aren taldeko elementuen taldean (hartu O, S eta Te elementuak)
Datua: ionizazio-potentziala eta $(Z^*/n^*)^2$ proportzionalak dirá

19. Idatzi ondoko zenbaki atomikoak dituzten elementuen konfigurazio elektronikoko osoak oinarritzko egoeran::

- (a) $Z = 21$; (b) $Z = 37$ elektroi bat galdu duena; (c) $Z = 57$; (d) $Z = 83$

20. Ondoko orbitalak kokatu energia diagrama batean: 3p, 1s, 4s, 2p, 3d y 2s.

- l) hidrogeno atomo batean
- m) espezie hidrogenoide batean
- n) atomo polielektroniko batean

Alderatu atal desberdinak.

5.a

- 21.** Zer da Ψ ? Nola adierazten da? Zer adierazten du bere berbidurak?
- 22.** Zein da lau zenbaki kuantikoen esanahia? 3d orbital batean dagoen elektroio batek izan ditzakeen lau zenbaki kuantikoen konbinaketak idatzi
- 23.** Ondoko orbitalak kokatu energia diagrama batean: 3p, 2p, 3s, 3d, 4d y 2s.
o) hidrogeno atomo batean
p) espezie hidrogenoide batean
q) P atomoan
Alderatu atal desberdinak
- 24.** Trantsizio ioietan (adibidez $Z = 23$ daukan banadioan) ionizatutako elektroioiak ns-koak izaten dira eta ez (n-1)d-koak, zergatik?
- 25.** Justifikatu ondoko magnitudeen aldakuntzak:
- a)
- | | N | P | As | Sb |
|--------------------------|------|------|------|------|
| erradio (\AA) | 0,92 | 1,28 | 1,39 | 1,59 |
- b)
- | | Li | Be | B | C | N | O | F |
|--------|------|------|------|-------|-------|-------|-------|
| I (eV) | 5,39 | 9,32 | 8,30 | 11,26 | 14,53 | 13,61 | 17,42 |

6.a

- 26.** Elementu baten bi isotopoak desberdintzen dira:
- bere masa zenbakian
 - bere protoi kopuruan
 - bere neutroi kopuruan
 - bere masa atomikoan
 - bere zenbaki atomikoan
- 27.** Elektroi bat mugitzen da 62 m/s-ko abiaduraz eta 6.0×10^{-2} kg-ko tenis pilota bat abiadura berdinarekin. Kalkulatu kasu bakoitzean uhin asoziatuaren uhin luzera.
- 28.** Oinarrizko egoeran dagoen karbono atomo bateko elektroientzako ondoko baieztapenak zuzenal al dira?
- Z^* berdina da 1s orbitaleko elektroi bat eta 2s orbitaleko elektroi batentzako
 - Z^* berdina da 2s orbitaleko elektroi bat eta 2p orbitaleko elektroi batentzako
 - 2s orbitaleko elektroi baten energia eta 2p orbitaleko elektroi batena berdina dirá.
 - 2s orbitaleko elektroien m_s zenbaki kuantikoaren balioa berdina da.
- 29.** Ondoko konfigurazio elektronikoak:
- $1s^2 2s^2 2p^6 3s^2$
 - $1s^2 2s^3 2p^5 3s^2$
 - $1s^2 2s^2 2p^6 3s^1 3p^1$
 - $1s^2 2s^2 2p^6 3s^1 3d^1$
 - $1s^2 1p^6 2s^2 2p^2$
- magnesio atomoari dagozkionak dira ($Z = 12$). Zeintzuk adierazten dute atomoa:
- bere oinarrizko egoeran?
 - egoera kitzikatu batean?
 - gerta ezin daitekeen konfigurazio batean?
- 30.** Nola aldatzen da erradio atomikoa $n=2$ duten elementuetan? Eta ionizazio-potentziala?. Arrazoitu zure erantzunak

7.a

31. Ondoko lau elektroiak sailkatu bere energia gorakorren arabera H atomoan:

	n	l	m_l
a) 4	4	0	0
b) 3	3	2	1
c) 4	4	1	-1
d) 2	2	1	-1

S atomoan emaitza berdina al litzateke? Arrazoitu.

32. Ondoko funtzio angeluarrak emanik deduzitu zein orbitala adierazten duen bakoitzak:

$$A_{2,0} = (5/16\pi)^{1/2}(3\cos^2\theta - 1) \quad A_{1,-1} = (1/4\pi)^{1/2}\sin\theta\sin\phi$$

33. Elementu baten konfigurazio elektronikoa idazteko zeintzuk dira jarraitu beharreko arauak? Aplikatu eta idatzi ondoko zenbaki atomikoak dituzten elementuenak:

(a) $Z = 2$; (b) $Z = 10$; (c) $Z = 15$

34. Adierazi taula periodikoko ondoko taldeen oinarrizko balentzi konfigurazioa: (adibidez, ns^1 metal alkalinoentzako)
 (a) gas nobleak; (b) halogenoak; (c) zinkaren taldeko metalak (12); (d) titanioaren taldeko metalak (4); (e) nitrogenoaren taldea (15).

35. Periodo batean lehen ionizazio energiak handitzen doaz zenbaki atomikoarekin. Zergatik. $n = 2$ duten elementuetan betetzen al da esandakoa? Ba al daude salbuespenak? Aztertu salbuespenak.

8.a

- 36.** Espezie atomiko batz ${}^A_Z X$ ikurrez adierazten denean:
- Z elementuaren zenbaki masikoa da
 - Z nukleoaren karga positibo kopurua da
 - Z zenbaki atomikoa da
 - A nukleoan dauden protoi + neutroi kopurua da
 - Formulazio honen bidez ezin da ezagutu espeziearen elektroi kopurua.
- 37.** Zeintzuk dira 5p elektroi batek izan ditzakeen lau zenbaki kuantikoen konbinaketak? Eta 5s elektroi bati dagozkionak?
- 38.** Potasioaren ionizazio energia txikiagoa da sodioarena baino azken honen karga nuclear eraginkorra txikiagoa den arren. Justifikatu.
- 39.** Ondoko orbitalak kokatu energia diagrama batean: 3p, 4f, 4s, 4d, 3d eta 3s.
- hidrogeno atomo batean
 - Li^{2+} espeziean
 - Na atomoan
- Alderatu atal desberdinak
- 40.** Ondoko baieztapena zuzena al da?: oxigenoaren lehen eta bigarren afinitate elektronikoak positiboak dira, O^{2-} oso ezpezie egonkorra delako

9.a

- 41.** Kloroa naturan bi isotopoz osatuta dago bata 35 masakoa (75%) eta bigarrena 37 masakoa (25%). Kalkulatu kloroaren pisu atomikoa.
- 42.** Irudikatu banaketa erradialaren funtzioa 1s, 4s eta 5s orbitalentzat. Sailkatu orbital hauek bere batazbesteko erradioaren arabera.
- 43.** Zenbat orbital daude $n = 3$ daukan energia-mailan? Zeintzuk dira? Kokatu orbital horiek energia diagrama batean:
 dd) H atomoan
 ee) S atomoan
 Alderatu, arrazoituz, atal desberdinak.
- 44.** Idatzi ondoko espezieen konfigurazio elektroniko osoak oinarrizko egoeran (e^- kopurua):
 Mg (12); (b) Ti (22); (c) Ni^{2+} (28-2); (d) S^{2-} (16 + 2); (e) O (8)
- 45.** Aztertu erradio atomikoen baloreak $n = 3$ daukan periodoan eta 16. taldean. Justifikatu erradioen aldakuntza aipatutako periodo eta taldean.

10.a


46. Determinatu ondoko atomoen protoi, neutroi eta elektroi kopuruak:



47. Zenbaki kuantikoen esanahia uhin mekanikan.

48. $Z = 4$ duen elementuak zenbat lotura kobalente osa ditzake? Hurrengo energia mailan dagoen bere taldekidearen portaera antzekoa da? Arrazoitu

49. Idatzi ondoko espezieen konfigurazio elektroniko osoak oinarritzko egoeran e^- desparekatu kopurua adieraziz:



Adierazi espezie hauen abiaburuko atomo neutroak adierazgarri edo tratsiziozkoak diren. Deduzitu atomo hauen talde eta periodoa

50. Bikote bakoitzean nola aldatzen da ionizazio potentziala? Eta erradioa?.
Deduzitu

- i. Ca y Sr
- ii. Be y B
- iii. S y Cl

4. ERANSKINA

1. puzzlea: Espertoei galdetegia

(Likert Eskala: 1 (gutziz kontra) - 5 (gutziz ados))

1. gaia

Badakit zeintzuk diren atomoen osagaiak eta beren oinarritzko ezaugarriak	1	2	3	4	5
